

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lesmes Mujika Mitxelena

*Zizurkil,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



Oiartzungo Lizarre baserrian jaioa. Bai aita eta bai ama oiartzuarrak zituen. Zazpi senidetan bosgarrena. Anaia Zizurkilgo emakume batekin ezkondu zen, eta handik ezagutu zuen berak bere senarra izango zena. Hogeita bi urterekin ezkondu zen Zizurkilera. Bertan, herriko emakume gazteentzat sukaldaritza ikastaroak antolatzen ibili izan zen urteetan. Bestalde, astero behin edo birritan Donostiako Bretxara joan ohi zen etxeko generoa saltzera.

Zintak

ZIZ-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-06-24
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

ZIZ-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-06-24
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aingerutan hildakoak

- **Erref:** ZIZ-002/003
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:04:37. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Lehen ume asko hiltzen ziren txikitan. Aingerutan hiltzen zirenak aparte enterratzen zituzten. Fraisoroko egoitzan hiltzen zirenak leku berezia zuten herrikoen hilobietatik aparte.

2. Fraisoroko egoitza

- **Erref:** ZIZ-002/004
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

<p>Fraisorora ezkongabetan haurdun gelditzen zirenak etortzen ziren. Herriko batzuk bertakoei ikastaroak ematen zizkien, sukaldaritzan ikasteko eta. Fraisoroko umeak bisitatu zituenean, maitasuna falta zitzaiera iruditu zitzaion.</p>

3. Fraisoroko egoitzan

- **Erref:** ZIZ-002/005
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak

Laburpena:

Garai batean amek Fraisoron umeak uzten zituzten, baina beranduago amak bertan gelditzeko aukera izaten zuten, umeen hoberako. Ama haiei ematen zizkien ikastaroak. Lesmes Fraisoron ibili zen garaian bertan 99 ume zeuden.

4. Fraisoroko umeei ez zitzaizkien gauza materialak falta

- **Erref:** ZIZ-002/006
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Fraisoroko egoitzan umeen armailuak txukun-txukun zeuden. Mojak lan handia egiten zuten. Umeei ezer materialik ez zitzaien falta. Umeek txikitan maitasuna behar dutela pentsatzen du ordu ezkeror. Ume guztiak hiru urte bitartekoak ziren. Jendea ume bila joaten zen Fraisorora.

5. Fraisorora emakume bila

- **Erref:** ZIZ-002/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Batzuetan inguruko gizonak emakume bila joaten ziren eta hiru emakumeren artean aukeratu behar izaten zuten ilunpetan. Hori berak ez du ikusi, baina esaten zituzten gauzak dira.

6. Ezkongabetan haurdun gelditzea lotsa zen familiarentzat

- **Erref:** ZIZ-002/009
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:18:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Fraisoren egona izatea betirako marka izan zitekeen. Esnea partitzen zebilenean haurdun gelditutako neska baten berri izan zuen eta haren amak sufrimendu handia zuela dio, familiako lotsa bezala hartzen zen. Lesmesen ustez behin gertatuz gero neskari laguntza eskaini behar zaio.

7. Sukaldaritza ikastaroak antolatzen zituzten herrian I

- **Erref:** ZIZ-002/012
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:22:36. **Bukatu:** 00:26:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Kalean ikastaroak egiten zituzten urtean behin edo bitan. Koaderno batean apuntatzen zituzten sukaldariak emandako errezetak. Hamabost bat emakume juntatzen ziren. Dirua jartzen zuten sukaldaria ordaintzeko. Egindako janaria zozkatu egiten zuten. Ezkondutako emakumeak ziren gehienak. Gizonezkoak ere parte hartzen zuten, baina sukaldaritzan ikasten ez. Helburua herriko jendea zerbait erakustea zen.</p>

8. Sukaldaritza ikastaroak antolatzen zituzten herrian II

- **Erref:** ZIZ-002/013
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:26:44. **Bukatu:** 00:28:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Jendeak ikasteko interesa izaten zuen. Sukaldaria behin Oiartzunetik ekarri zuten. Errezeta desberdinak erakusten zizkien. Asko ikasten zuten.</p>

9. Idiak kendu eta uztarriko behiak jarri

- **Erref:** ZIZ-002/015
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:29:17. **Bukatu:** 00:32:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oiartzunen esne asko zegoen eta Zizurkilen berriz gutxiago. Orain alderantziz gertatzen da. Ezkondu aurretik Donostiara eta Errenteriara joaten zen esnea eta barazkiak saltzera, asto gainean. Oiartzunen behiekin uztarrían ibiltzen ziren. Zizurkilen, berriz, idiak mendian ibiltzeko mantendu behar ziren. Horregatik idiak kendu egin zituzten eta uztarriko behiak jarri zituzten.

10. Bretxako azokara fruta eta berdura saltzera

- **Erref:** ZIZ-002/016
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:32:21. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Etxean terreno nahikoa zuten eta lan asko egin behar izan dute. Gaur ere baserriko lana gogorra da, ez da batere hobetu. Fruta asko zuten eta plazara joaten zen saltzera. Asto gainean jaisten ziren eta Villabonan trolebusa hartzen zuen, hasieran Tolosara eta gero Donostiako Bretxako azokara. Bretxan berrogei urte pasa ditu.

11. Bretxako azokan fruta eta berdura saltzen

- **Erref:** ZIZ-002/017
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:37:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Bretxako azokaren kanpoaldean espaloia zegoen eta hantxe jartzen ziren, arrantzaleen ondoan. Fruta eta barazkia saltzen zuten. Ez zuten postu finkorik, baina halere pagatu egin behar zuten. Garai hartan sei edo zortzi pezeta ordaintzen zituzten. Beranduago barruko azokakoak kexatu ondoren, barruan sarrarazi zituzten.

12. Merkatura iristeko karreteroari ordaindu

- **Erref:** ZIZ-002/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:37:07. **Bukatu:** 00:38:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Astean hiru edo lau aldiz joaten zen azokara. Donostiara iristean karretaroari ordaindu behar zioten trolebusetik edo trenetik azokaraino gauzak eramaten laguntzeko. Saski bakoitzeko ordaintzen zioten. Karreteroak berak tiratzen zion karroari eta saltzaileek atzetik bultza egiten zuten.

13. Azokan saltzeak kostu handia zuen

- **Erref:** ZIZ-002/019
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:38:32. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Azokara iristeko bide luzea zuten: astoarekin jaitsi, trena hartu, karreteroari laguntza eskatu jeneroa garraiatzeko, postua ordaindu, saldu eta gero buelta. Kontuak atera behar ziren merezi zuen ikusteko. Inoiz, batek postua ordaindu eta ondokoaren produktuak saltzen zituzten.

14. Bretxako azokan loreak saltzen

- **Erref:** ZIZ-002/020
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:40:00. **Bukatu:** 00:43:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Loreak, bai sortan eta baita lur eta guzti, saldu izan ditu azokarako bidaiarako dirua lortzeko asmoz. Jendeak balkoiatarako erosten zizkien. Lore haiek hazia ekarrita etxean jartzen zituztenak ziren. Kontua etxera dirua ekartzea zen. Irabazi gehiena baratzetik ateratzen zuten. Baserriko bizimodua gaur ere gogorra dela pentsatzen du.

15. Emakumeak autoa izatea gaizki ikusita zegoen

- **Erref:** ZIZ-002/021
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:43:14. **Bukatu:** 00:46:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gidatzeko agiria atera zuenean, gauzak hobetu ziren. Berrogeita bi urte zituen gidabaimena lortu zuenean. Emakume gutxi zuten gidabaimena Zizurkilen. Esamesengatik ez zuen lehenago baimena atera. Emakumeak autoa erostea ez zegoen ongi ikusita, harrokeriatzat hartzen zen. Jendeak gaizki hitz egiten zuen autoa erosi zuelako.

16. Amari bisita egiteko egun osoko ibilbidea

- **Erref:** ZIZ-002/022
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:46:27. **Bukatu:** 00:48:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Autorik ez zuenean Oiartzunera joateko lehenengo oinez jaitsi behar ziren geltokiraino. Trenez Erreteriarara, handik autobusa hartu eta ondoren oinez berriro ere. Egun osoa behar zuen amari bisita egitera joateko. Oinetakoak aldatu behar zituzten mendiko bidea egin ahal izateko. Autoa duenetik gauzak asko aldatu zaizkio.

17. Gona luzeak amonaren garaian

- **Erref:** ZIZ-002/026
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:54:55. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Garai batean emakume guztiak gona jantzita ibiltzen ziren. Gona oso luzea eramaten zuten bere amaren garaian. Gaztetan gona motz eta estuen moda etorri zen. Amak gona luzatzeko esaten zion belaunak ikusten zitzaizkiolako. Amona arropa oso luzeekin ezagutu zuen.

18. Jantzeko moduaren aldaketa 12 urtetik aurrera

- **Erref:** ZIZ-002/027
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:57:00. **Bukatu:** 00:59:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Berrogei urte inguru zituenean, jarri ziren modan gona estu eta motxak. Eserita jartzeko arazoak izaten zituzten. Nerabe zenean, belaunaren azpitik eramaten zituzten soinekoak. Hamabi urte betetzen zituztenean neskak galtzerdiak jartzen zituzten eta gizonezkoek galtza luzeak. Aldaketa hori egiteko egun seinالاتu bat aukeratzen zuten.

19. Galtza luzeak janztearen esanahia

- **Erref:** ZIZ-002/028
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:59:11. **Bukatu:** 01:01:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Oiartzungo iloba bati galtza luzeak janzteagatik behar baino lehenago gizon egin zutela esaten zioten. Mutilak neguan ere galtza motzekin joaten ziren umetan.

20. Festatik etxera egun argiz itzuli beharra

- **Erref:** ZIZ-002/029
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:01:24. **Bukatu:** 01:04:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Galtzerdiak janzteak bileratara joateko adina suposatzen zuen. Bilerak plazan egiten zituzten dantzaldiak ziren. Etxera Ave Mariatarako bueltatu behar zuten, egun argiz. Galtzerdi meheak izaten ziren, oraingoan antzekoak, ligarekin eutsitakoak. Garai hartan, mundua oso itxia zen eta oraingoa berriz libreegia. Tarte bilatu beharko genukeela pentsatzen du.

21. Modaren aldaketak

- **Erref:** ZIZ-002/030
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:04:21. **Bukatu:** 01:06:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Gaur egun nahi dugun bezala jantzi gaitzezkeela iruditzen zaio. Lehen denak

antzera janzten ziren. Lehen arropa nola moztuta zegoen begiratzen zuten, erakusleihoetan begiratzen zuten. Gaurkoa oso desberdina da. Lehen gauza normalagoak erabiltzen ziren.

Mujika Mitxelena, Lesmes | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com